

Nooqua!!!

H A M A B O S K A R A

2002ko maiatzaren 3a VII.urtea

Usurbil, 135. zenbakia

EROSKATZU
EUSKARAZ
ezazu



euskaraz erosteak
eztu prezioak

USURBI

GIDARI-ESKOLA



ESKAINITZA BEREZIA:

Matrikula: 180,30 euro (30.000 pta.)

Klaseak: 21 euro (3.500 pta.)

MATRIKULA ZAITEZ!

Kale nagusia, 5

Telf: 943 36 27 93 651 70 37 71



ETXETXO

lorategia

Amari ez
dakizula
zer oparitu
Amaren
Egunean?



Gurean izango duzu
bilatzen ari zaren oparia



Barruko eta kanpoko
landareak

**ZABALDU
BERRIA!**

ZUBIETA, Telf: 943 37 24 05

aldaketarako konpromisoa

Mendeetan jasandako oinazearekin behin betiko amaituko duen aldaketa beharrezkoa zaigu. "Euskal Herria eraikitzen. Aldaketarako konpromisoa" dokumentua dela medio, Batasunak eszenatoki demokratiko baterako bere ekarpena egingo du.

Honen bitartez, proposamen horren aurkezpenera gonbidatu nahi zaitugu.

EGUNA: maiatzaren 16a, osteguna


ORDUA: 19:30etan

LEKUA: Udarregi Zaharrean

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Peru** eta **Jone!** Biak urte bete egingo duzue; Peruk apirilaren 26an eta Jonek maiatzaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak **osaba** eta **ilobari!** Josek maiatzaren 6an eta Luciak maiatzaren 11n. Lehenengoa Mexikon eta bigarrena Gironan. Baina hemendik biontzat muxu handi bat, familiaren partez.



Zorionak **Maddi!** Hurrengo maiatzaren 3an 13 urte beteko dituzu. Ondo pasa! Etxekoan partez.



Zorionak **Iratxe** eta **Asier!** Zenbat urte egingo dituzue maiatzaren 10ean? Ze haundiyak!! Muxuak aita, ama, tatlxi, xulux, ingu, sabi eta Uauauaren partez



Zorionak **aita** eta **alabari!** Maiatzaren 7an zela 10ean egun ona pasatzea espero dugu. Zorionak eta muxuak etxekoan partez eta beti bezain umoretsu jarrai deza-zuela, urte askotarako!



Hona hemen edonor zorientzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohai-nik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: maiatzak 17. Ekartzeko azken eguna: maiatzak 10.

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 36 28 49
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarteak 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- BaKe epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Maiatza						
Astel.	Astear.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
		1	2		4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan
6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan
7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.
Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara
943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberrri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Eснаоla, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Legе-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Zazpi herrialdeetako ordezkari bat egingo dute Usurbilen.



Egun pil-pilean dabilen gaia dugu, pasa den apirilaren 18an Eusko Jurlaritzak aurkeztu zuen jaiotzen laguntza programa.

Zer esana izan du, izan ere kutsu "natalistatza" jo baitute hainbat eragileek, besteen artean zalantza hauek mahai gainean jarriaz: zein izango da 2002. urte aurretik jaio diren familiei emango zaien erantzuna, zer pasako da hasierako urte horiek pasa ostean haur horiek aurrera atera behar direnean... galdera eta zalantza hauek ez dute programa honek duen asmoarekin bat egiten "emakumearen berdintasun printzipioari eutsiz lan eta familia alorrek elkarren osagarri bilakatzeko".


Programa honen helburu nagusia seme-alabak izatea eragozten duten oztopo ekonomikoek aurre egiteko sistema abiatzea omen da. Hau horrela izanik, hiru atal nagusi jorratuko direlarik: diru laguntza programa jaiotzen diren seme-alabengatik, jaiotako en zaintza errazteko lanaldiaren murrizketa eta eszedentzia politika eta haur eskolen eragina sustatzea.

Guri, haur eskolako hezitzaile garenok, gogoeta bat egitea gustatuko litzaziguke azken helburu honi dagokionean.

Haur guztiek jaiotzetik dute heziketa bat jasotzeko eskubidea, hau baldintza batzuen barruan ematea ezinbestekotzat jotzen delarik. Honi eutsiaz,

Familia planaz**Edurne Urdanpilleta eta Maider Ollokiegi, Haur Eskola**


LOGSE-k 1990. urtean Haur Hezikuntzaren etapa (0-6 urte bitarteko adin tartea) finkatzen du, hau ez delarik derrigorrezkoa. Etapa hau bi ziklotan bereiztua dago haurren garapen globalaren arabera (0-3 eta 3-6). Orain arte ezezaguna den arrazoirengatik Hezikuntza sailak bigarren zikloa soilik babestu du eta hori gutxi izango balitz lehenengo zikloa ere erdi-erditik puskatu du 2-6 urte bitarteko haurren adin tarteari erantzunez. Hau horrela izaki, urtetan Haur Eskolen koordinatzailea denak 0-3 urte bitarteko zikloa hezikuntza bezala errekonozitua eta arautua izan zena aplikatzea eskatu du, beti ezeztatu egin zaiolarik eskubide hori, Osasun eta Gizarte sailaren eskutik egon delarik bideratua 0-2ko adin tartea. Honek hainbat desoreka ekarri ditu 0-3 urte dituen haur batek jaso dezakeen heziketa baten aurrean; haur eskolen errealitatea oso desberdina eta anitza da, gehiengoek zeregin asistentzialean oinarritzen direlarik, inongo curriculum-ik ez eta koherentziarik eduki gabe Euskal Herriko beste haur eskolekin. Pasa den azaroan lehenengo aldiz Hezikuntza sailak bere gain Haur Hezikuntzako zikloa hartu zuen, hainbat arlo mahai gainean daudelarik eztabaidagai, beraz, oraindik erronka luzea daukagu, bakoitzak bere mailan egun Euskal Herriak dituen beharrei erantzun zabal eta anitza eman nahi badiogu.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zumarte taldeak lan ona egin du Euskal Kantu Txapelketan

Euskal Kantu Txapelketa amaitu berri da eta aipatzekoa da Zumarte Musika Eskolako taldeak egin duen lana. Andoain, Ibarra eta Beasaingo kanporaketak aise gailendu ostean, finalerako sailkatu ziren Ekhone Olai-zola, Nagore Unanue eta Agurne Alkorta gazteak.

Urduri igaro dituzte azken asteak. Baina ahaleginak merezi izan du. Zumarte izenarekin lehiatu den hirukote honek "Maitia non zira" kantuari iritsi zen finalera. Izan

ere, errepertorio klasikoa berreskuratzea da Euskal Kantu Txapelketaren helburu nagusia. Honekin batera, musika eskoletan egiten den lanari bidea eman nahi zaio Euskal Kantu Txapelketaren bitartez.

Hori guztia gutxi balitz, kantari eta talentu berriak aurkitu eta bultzatu nahi ditu antolaketa batzordeak. Horien artean dira gure protagonistak. Urduri baina pozik aritu dira txapelketa osoan. Bergaran ospatu zen finalera 40 lagunekin batera joan ziren autobu-

sez. Lan ona egin zuten eta horregatik gustura daude baina finaleko epaimahaiaren azken erabakiarekin ez daude hain konforme.

Nahiz eta Bergarako finalean txapela ez irabazi, finalera iristea eta lortutako oihartzuna bada nahikoa meritu.

Aurrera begira, zuzenean aritzeko proposamenak entzuteko prest dira.

Zorionak hirui eta ea hurrengo batean zorte hobea duten!

Kantariak, banan banan



Ekhone Olaizola,
16 urte.
Gitarrajolea da.

Handitan zer nahi duzu izan:
Biologa edo artista.

Gustuko musika taldea:
Labrit, Asgarth edo Dido.

"Operación Triunfo"n izena emango al zenuke?

Bai, baina euskalduna balitz bakarrik.

Sagardo Egunean kantatuko al zenuke?

Bai, oso gustura.



Nagore Unanue,
17 urte.
Esku-soinujolea.

Handitan zer izan nahi duzu:
Musikaria edo irakaslea.

Gustuko musika taldea:
Asgarth edo Sutagar.

"Operación Triunfo"n izena emango al zenuke?

Bai, kantuan aurrera egiteko bide bat baita.

Sagardo Egunean kantatuko al zenuke?

Bai, kantatuko nuke.



Agurne Alkorta,
17 urte.
Trabeskako flauta.

Handitan zer izan nahi duzu:
Kantaria edo naturarekin zerikusia duen zezer.

Gustuko musika taldea:
Mikel Urdangarin, Ken 7.

"Operación Triunfo"n izena emango al zenuke?

Bai.

Sagardo Egunean kantatuko al zenuke?

Bai, nerbioak alde batera utziz.

ERRAZKIA

**Igeltzeritza
orokorra**

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Saturne, Mob: 629 02 05 65

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

*Pinturas
lon*



943 83 09 37 ☎ 670 397504



SANTUENEA

Isaak Muñoz



Gure lurrak

Udaberrian murgildu gara dagoeneko eta, urtero bezala, Aste Santu garaian nekazariei lana ugaritzen zaie.

Lehendabizi lurra goldatu, gero lurrak landu, ximorra zabaldu eta, azkenik, haziak erein. Baina, noski, gero ondo zaindu behar dira landarearen fruitua ahalik eta emankorra eta hoberena atera dadin. Gainera, ereiten den landare, fruitu edo barazki motaren arabera, beste zeregin batzuk egin behar dira: sareak jarri, maki-lak...

Ez da lan erraza. Gainera, urtetik urtera gure artean nekazari gutxiago ditugu edota lanordu osoz nekazaritza jarduera dutenak ere ez dira hain-

beste. Hemendik aurrera, gainera, eguna luzatzen da eta horrek mesede egin arren nekazariari, egia da ere lan gehiago suposatzen duela.

Erriberari erreparatzen badiogu, baratzen egoera hilabete batzuen buruan zenbat aldatu den konturatzen gara. Gure auzoan, erriberako baratzez gain, ez dago askorik. Egia da



ere gure auzoa txikia dela eta lur sail asko dituela. Baina, egun inoiz baino gutxiago dago. Nekazaritzaren munduari ez zaio behar beste garrantzia ematen, eta hori ez da batere ona gure gizartearentzako.

Gaia erabat aldatuz, azken aldi honetan, gasa izan da auzoaren komentario nagusia. Hobi nagusiak etxez etxe pasa eta gero, orain etxe bakoitzean beharrezko instalazioak egitea falta da. Etxe batzuetan dagoeneko hasiak dira.

Instalazio hauek egin eta gero, geratuko den lan bakarra etxebizitzetara gasa sartzea izango da. Nahi duenak, behintzat!

URDAIAGA

Joseba Zubeldia



Andatza Eguna

Maiatzan sartu gara, eta urtero bezala, ospakizunez beterik dator aurtengoa ere, gure herrira behintzat.

Maiatzaren 1ean ospatutako Langileen Eguna pasata, hurrengo jaia maiatzaren lehenengo igandekoa dugu: Andatza Eguna.

Aurten ere ez du hutsik egingo Andatza Mendi elkarteak antolaturiko egitarauak. Baina, aurtengoak, ordea, zerikusitu gutxi du garai bateko egitarauarekin. Izan ere, aurten ez baita egongo meza nagusirik ezta bazkariarik ere Andatza gainan.

Hala ere, hamaiketakoak izango du tarterik; salda eta haragi gosia banatuko baita

bertan, trikiti soinuaz lagundurik. Garai batean babarrun platerka ederrak jateko parada eskaintzen zigun Andatza Eguna. Iaz bertan behera utzi zen bazkaria eta aurten ere ez da babarrun, oholki eta txorixorik izango. Zergatik, bada? Agian urterik urtera Andatzara geroz eta herritar gutxiago igotzen delako.



Ea bada eguraldi ederra egokitzen den aurten eta herritar gehiago animatzen den bertara igotzen, urtean behin baita Andatz Eguna! Gainera, entrenamendu ona izango da hurrengo igandean Iparraldeko ikastolen alde antolatzen den Herri Urrats egunerako, Xenpereko lakuaren inguruko zirkuituan ibiltzeko.

Egun hau igarota, bi asteberu barru Usurbilgo egunik ederretarikoaren txanda izango da, Sagardo Egunarena, hain zuzen ere. Ea, bada, jaietz betetako hilabete honi probetxua ateratzen diogun lehenengo asteberutik hasita.

Hurrengorarte!

KALEZAR

Joseba Pellejero



Hautsak arrotzen

Kaixo irakurleak! Konturazterako berriz gara bueltan Kalejiran.

Oraingo honetan kexu gatoz kalezartarrak Artzabal ondoko etxebizitza obrak direla eta. Lanean lurra ateratzen ari diren kamioi guztiak Puntapaxetik Kalezar aldera joaten dira eta nahi eta nahi ez bidea lurrez zikintzen da. Eguraldi lehorrarekin hauts handia arrotzen da ibilgailuen joan-etorrian eta euria egiten duenean berriz lokatza.

Aurreko aleetan bueltatxo bat ematera gonbidatzen genizuen, orain berriz, ezin esango dugu gauza bera. Oinetako zuriak etxean utzi

beharko dituzue behintzat.

Gaia aldatuz, berri hau idazteko eskatu dit auzotar batek: Txikierdiko Zabalonea baserri ondoan, hor egoten omen da jendea Urbildik atera eta autobusaren zain etxera bueltatzeko. Konturatuko zineten zenbait garaitan jende multzo handia biltzen dela geltoki horretan, ez argi eta ez aterpe bide bazterreko

petrilean zain.

Entzun behar duenak entzun dezala eta hurrengo batean bestelako albisteekin etorriko gara.



ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Zorionak Nagore!

Lagunek kontatu zidaten parranda giroan sagardotegian entzun zutela kantatzen, pare bat lagun alboan hartuta. Eta primerako ahotsa zuela ere esana zidan batek baino gehiagok. Sinistu, sinistu nuen, baina, jendaurrean kantatzeko ausardia hori juergaren kalenturaren ondorio zela pentsatu nuen.



Bada, ez. Joan den larunbatean, hilak 27an, Bergarara egin zuen bidaia, Euskal Kantu Txapelketako finalera eta, han, ehundaka lagun aurrean, kantari aritu zen, Ekhine eta Agurnerekin batera. Hirurek merezi dute aitatzeta baina, txoko honetan, Atxegaldekoa izaki, gure auzoko neskatxari egingo diot tarte handiagoa, inor haserrerarazteko batere asmorik gabe.

Berrogei herritarren babes epela ere izan zuten, autobusa antolatuta baitzegoen Bergara aldera. Amaian, sailkapenean lortutako txokoa ez zen espero edo merezi adinakoa izan, oso ondo aritu zirela esan baitute guztiek. Eta ez herritarrak baka-

rik, behin amaituta Bergarako finala ikusi zuten askok zoriondu omen zituzten.

Lehenengo hiru postuak Bergaran bertan gelditu ziren, jokaera susmagarria epaimahaiaren aldetik. Baina, tira, han egon gabe eta kontatu didatenaekin halako kritikak egitea ez litzateke oso serioa nire aldetik eta hortxe utzi behar kontua, bazterrak nahastu gabe. Postuak postu eta epaiak epai, pozgarria da gure auzoan "artista" gazte bat dugula jakitea. Ea aurrerantzean ere Nagore Unanuek zer kontaturik ematen digun. Eta hala izan edo ez, bihotz-bihotzez zorionak Nagore.

TXOKOALDE

Imanol Goenaga



Akerra gaztetxearen proposamenak

Agur t'ardi denoi! Oraingo honetan ere Gaztetxeko berriak aipatuz nator txoko honetara.

Gehienok jakingo duzuenek, bai kaleetan ipinitako kartelengatik edota etorritako jendearengatik, joan den apirilaren 26an Haritz Harreguy usurbildarraren Sen taldeak Akerra gaztetxean jo zuen. "Gaizki esanak..." izeneko diskoa aurkeztu zuten zuzenean.

Sen taldekoen bigarren lana duzue hauxe eta Andoaingo Garate estudioan grabatua izan da.

Kontzertuak talde bakar hau izan zuen arren, jende ugari bildu zen gaztetxean eta Sen

taldekoen saioa amaitu ostean ere giro polita eduki genuen.

Esan beharra dago usurbildar askorentzat gaztetxeko lehen egonaldia izan zela, ea ba gure esfortzuak aintzat hartzen dituzten eta beste kontzertuetara ere agertzen diren.

Beste gai bati helduz, apirilaren 29an egin beharreko Arau subsidiarioei buruzko tertulia atzeratu egin zen orduko gertakarien eraginez.

Tertulia hau auzotarrek daki-zuenek, Usurbilgo Batasunak antolatzen du eta Akerra Gaztetxean egingo da baina aurrerago zehaztuko den egun batean.



KALEBERRI

Ines Kamino



Jaigiroa nagusi

Hemen naiz berriro Noaua! aldizkariak eskaintzen digun tarte honetan bi gauzaxo aipatu asmoz.

Hasteko, "Elkartasuna... etorkizuna" festak izan zuen arrakasta aipatu nahi dut. Zazpi herrialdeetako lagunak hurbildu zitzaizkigun eta honi esker giro polita sortu zen kaxkoan. Aipatzekoa bazkal orduan frontoian osatu zen saltsa. Zikiro-jana dastatzeko aukera izan zuten festara hurbildu ziren guztiek.

Baina beste gai bat ere ekarri nahi dut orri honetara. Izan ere, lehenengo batean kalean nihoala

pertsona batek geratu zidan eta zera esan zidan, orain dela egun batzuk bere andrea eta beste lagun batzuk pasiatzen zihoztela eta istripu txiki bat



izan zutela. Kiroldegiko bidetik zihozten oinez eta denok dakigun bezala, zuhaitz txiki batzuk daude bide bazterrean.

Berriketan zihozten eta konfaturatu gabe, lagun haue-tako batek zuhaitz baten ondoan zebilela hanka hautsi zuen. Zuloak daude zuhaitzen aldamenetan eta horren ondorioz, oso arriskutsu dago ingurua. Egia esan, edozeini gerta dakioko. Beraz, zuhaitzen aldamenetan dauden zulo horiek nola edo hala estali beharko lirateke.

Ea laster konpontzen duten, berriro horrelakorik entzun ez dezagun.

AGINAGA

Lanerako deia

Maiatzarekin batera, hasi da mugimendu pixka bat nabaritzen gure herrian. Eta Langile Eguna pasa berri-tan, lan eske jo behar dut herritarrengana; gero denon gustuko emaitzak ematen dituzten lanak dira, ordea.

Batetik, San Praixkutako bilerak has-tera doaz eta, aurt-ten frontoia ere badaukagunez, festa "expexial" bat egin nahi baldin badugu behar-beharrezkoa da

bilera hauetan ahalik eta jende gehien bil-tzea. Beraz, inork ez dauka aitzakiarik ez azaltzeko eta aginagatar guztiek egin beharko genuke ahalegin txiki



Oskar Santamaria



bat herriko festen alde. Gonbi-tea egina dago. Ekarri behar-rekoa, berriz, ideia berriak eta lan pixka bat egiteko gogo handia baino ez dira.

Bestalde, soziedadean hil honetan bertan egingo da urteroko bazkide afaria. Aurt-ten, gainera, afariaz gain bazkide bilera ere izango da. Bazkide guztiak azaldu, beraz, asunto guztiak garbi-garbi gera daitezten.

Besterik gabe, beraz, agina-gatarrok, azaldu kaxko alde-ra. Ea guztion artean festa ederrak antolatzen ditugun!, gero parrandarako jendea soberan biltzen gara eta!

ZUBIETA

Bertso afaria

Lehengo larunbatean, apiri-lak 27, bertso afaria ospatu zen Araeta sagardotegian, Festa Batzordeak antolatuta, herriko jaien alde. Bertan, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bertsolari azpeitiarrak izan geniuen. Larogeien bat mahaikide-hentuzule izan ziren bertan eta giro atse-ginean jardun zuen saioak. Piskanaka piskanaka, giroa berotuz joan zen bertsolarien artean, batez ere Ebaristo Pikabea bertsozale amorratua gehitu zitzaizenean eta puntuka jardun zirenean. Gai librean aritu ziren, baino batez ere elkarri adarra jotzen igaro zuten saio gehiena.

Jende mota asko bildu ginen mahian, zubietarrak gehien bat, gazte eta helduak neskak zein mutilak eta denek nahiko



far eta algara botatzeko auke-ra izan zuten.

Santioak hurbiltzen ari direla eta, interesgarria izan zen horre-lako saioen bat herrian ego-tea, herriko giroa suspertzeko baliozgarria izango da eta.

Bestalde, aipatu nahi dut hasai dela dagoeneko errebo-teko eta plaza libreko joko garbi denboraldia, eta Zubietako Pilota Elkarteko pilotariak, ari

Mikel Bengoetxea



dira jo ta su Zubietako nahiz iparraldeko plazetan xextoak eta peloltak hastinduz.

Erreboteari dagokienez, bi talde arituko dira senior mailan gure herria ordezkatzten, eta dagoeneko jokatuak dituzte bi partidak, azkenekoak, igandek hogeita zortzian jokatu ziran Zubietako plazan eta bietan, Zubietako taldeak garaile suertatu ziren, talde batek Orthezeko taldea mendean hartuz 13 eta 11 emaitzarekin, eta besteak 13 eta 6 markagailuaz nagusitu zitzaion Saleies-eko taldeari, bi herri hauek, Euskal Herritik at daude Bearn eskualdean, Franzian. Hurrengo partidak, maia-tzaren 19an izango dira kanpo-an, eta zubietan, ekainaren 9an jokatu dira hurrengokoak.



Gastu militarrei ezetza

Urtero bezala, Haziendarekin kontuak egiteko garaia iritsi zaigu. Errenta aitortpena egiteko garaian gaude bete betean.

Guztiok dakigun bezala zerga bilketak administrazioko aurrekontuak hornitzeko tresnak dira; eta aurrekontu horietan, besteak beste, gerraren prestaketarako erabiltzen diren gastu militarrek ditugu. Azken kalkuluen arabera, aurrekontuen %13 osatzen dute gastu horiek.

Bidegabekeri militarra publikoki salatzen dugunok – edozein lekutik datorrela ere – eta makinarria militarra martxan iharduteko behar diren baliabideak eman nahi ez ditugunok, desobediencia zibileko ekintza dugu aukeran: Eragozpen Fiskala.

Eragozpen fiskala, urtero administrazioari ordaindu behar dizkiogun zergen kopurutik erabilpen militarra izango zukeen zatia desbideratzea da. Diru hori ez du bakoitzak beretzat gordetzen; gerra desagertuarazten inbertitzen da, eta horretarako bide bakarra injustiziarik ez egotea dela kontutan hartuz, injustiziaren desagertzea helburu duten proiektuetan gastatzen da.

Eragozpen fiskala dirua desbideratzea da.

Beraz, eragozleari ez zaio ezer kostatzen, Estatuari, aldiz, bai. Errenta aitortpena egiterakoan ez da gehiago ez gutxiago ordaintzen. Ordaintzekoa baldin bada gure aitortpena, Estatuari gutxiago ematen zaio, eta dirua beste elkarte edo

proiektu solidario bati desbideratu; itzultzeko bada, zeozer gehiago eskatzen da Haziendari bueltatu diezaigun.

Dirua buletatzea eskatzen zaionean, batzutan ez du kasurik egiten, eta besteetan "ez da bidezkoa" erantzuten du. Zenbaitetan eskatutako dirua bueltatu ere egin du (konturatu gabe seguraski). Diru gutxiago ematen diogunean, batzutan onartzen du (berriro ere, seguraski, eragozpen fiskalaz ohartu gabe) eta beste batzuetan ez. Azken honetan faltan dagoen dirua eskatuko digu.

Eragozpen fiskala "alegala" da, ez baitago bera arautzen duen legerik. Ez dago delitu gisa zigortzen duen legerik, ezta nola egitea arautzen duena ere. Argi dudana hau da: zilegia dela. Hiritarrak hori egiteko eskubidea dauka, Estatuaren interesen gainera kontzientzi-askatasunerako eskubidea duen heinean. Inork ezin gaitu behartu besteen eskubideen kalterako zer-bait egitera, eta guda edo indarkeria bultzatuko duen dirua ematea (Administrazioko zerga izan edo iraultza zerga izan berdin da), hori da.

Eragozpen fiskala egin nahi duenak Gipuzkoako Eragozpen Fiskaleko Taldera jo dezake:


Telefonoa: 943-320292.

Posta-kutxa: 1330-20080 Donostia

Helbidea: Segundo Izpizua kalea, 30, 1ªA (Gros auzoa, Donostia)

Aitortpen kanpaina irauten duen bitartean asteartero aurki ditzazkezu 19:00etatik, 21:00etara.

LuisMari Ormaetxea Santsiñena



N • U
Ileapaindegia

MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51



Euskaral presoak etxera!

WITZANGIN

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17



JOSUE
ARANZAZISTROKI

IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enca. 6 Telf: 943 36 05 51
2002 06 27 21 05

Oporrak gaixo eta ezinduentzat


Aurreko alean Imersok antolatutako bidaiak aipatu genituen. Honakoan, Gizarte Zerbitzuetan jaso diren beste bi deialdiren berri eman nahi dugu. Biak, arazo fisikoak edota psikikoak dituztenei zuzenduak.

Dagoeneko hasi gara oporetan pentsatzen. Aste Santuaren amaieran ohikoa izaten da udan pentsatzen jartzea. Hirugarren Adinakoek eta pentsiodunek Imersoren bitartez udaberrian bertan irteteko aukera dute. Baina ez dira hauek aukeran dauden oporraldi bakarrak. Horiek ekarri nahi ditugu gaurkoan gogora.

Alzheimer edo dementzia arazoak dituztenentzat

Alzheimer edota bestelako dementzia duten gaixoentzat Afaqik eta Gizartekintzak oporraldiak antolatu dituzte Nojan. Atsedean egun hauetan, gaixo daudenak gertuko pertsona batekin joan daitezke. Gainera, profesionalen esku egongo dira Kantabriako Noja herrian dagoen Las Dunas izeneko hotelean.

Alzheimer edo bestelako dementzia arazoak dituztenei zuzenduriko opor hauek doanekoak dira. Gaixoen senideek edo laguntzaileek, ordea, egonaldia ordaindu beharko dute. Prezioa gaixoaren diru-sarreraren arabera izango



Nojara joango dira alzheimerre duten gaixoak.

da.

Eskaerak AFAGI elkartearen egin daitezke: Mons Pasealekua, 141 behea-20015 Donostia. Informazio gehiago Gizarte Zerbitzuetan eskuratu daiteke: 943 37 71 10.

Gutxitu fisikoentzat ere aukera zabala da

Gutxitu Fisikoen Federazioak ere bidai programa zabala osatu du. 16 urtetik gorakoek zuzendua dago eta minusbaliotasun gehien dutenek lehen-tasuna izango dute. Honakoan ere, laguntzaileek ezinduak duen diru-sarreraren arabera kuota bat ordaindu beharko du. Maiatzaren amaieran hasi eta urria bitartean, Benidorm, Salou, Peñíscola, Cuba, Mallorca eta Tenerife bisitatze-ko aukera dago.

Eskaera-orriak Donostiara eraman beharra daude, honako helbidera: Plaza del Sauce, 2, Acc. 20010 Donostia.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eskura daude honako telefono zenbakiak: 943 469 386 / 943 470 349.

► Gainean ditugu Santixabelak

Aurrekoan aipatu genuen moduan, Jai Batzordea Santixabelak prestatzen hasi da. Egitarauaren diseinu lanak esleitzeko Jai Batzordeak lehiaketa bat antolatu du. Lanak maiatzaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Egitarauaren testua Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua. Jaietako egitaraua elebiduna izango da. Lana zuzenean inprentara eramateko formatoan ekarri behar da: TIFF formatoan, 300eko erresoluzioan eta kuartrikomian. Proiektua paper formatoan eta CDan aurkeztu behar da. Lan bakoitzaren paperezko 4 kopia ekarri behar dira.

Saria 300 eurokoa izango da (50.000 pta).

► Haurren danborrada ere martxan da

Haurren danborradarako deialdia egina dago. 3 eta 15 urte bitarteko haur eta gazte-txoekin osatzen da danborrada. Maiatzaren 8an amaituko da izena emateko epea. Nahi duenak egunkari kioskoan dauka izena emateko aukera, goizez, hain zuzen. Kopurua mugatua izango da.

Lehen entsegua maiatzaren 11n egingo dute Udarregin, txikien ikastolan 11:30etan.


Kalkos kopisteria

- 📎 Fotokopiak
- 📎 Fotokopiak koloretan
- 📎 Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- 📎 Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- 📎 Planoen kopiak (AO arte)
- 📎 Ordenadoreko lanak
- 📎 Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- 📎 Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea

20160 Irujoa, Oñati

Tel: 943 37 61 24 Fax: 943 37 61 55



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Herriko komertzioetan euskaraz erosteak eztu preziyoik, guztion ardura da

Badira hilabete batzuk Udalak herriko merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko kanpaina abian jarri zuela. Lan horretan Noaua! Kultur Elkarte eta Etumeta Euskaltegia ari dira. Euskararen normalizazio bidean merkataritzak duen garrantziaz jabetuta, 1998an eginiko “Zenbat da? Euskarak eztu preziyoik” kanpainaren ildoari jarraituz, iaz bigarren aldiari ekin zitzaion, “Herriko komertzioetan eros ezazu euskaraz” kanpainari bidez emanez.

Lehenengo urratsa herria girotu eta kanpaina herritarrei nahiz komertzianteei aurkeztea izan zen. Aldi honetarako “Herriko komertzioetan eros ezazu euskaraz” leloa erabili da. Mezu hau zabaltzeak kanpainarekiko identifikazioa eta bat egitea ekarri zuen. Mezuak bi helburu ditu; batetik, herritarrek herriko komertzioetan erosketak egitera bultzatu; eta, bestetik, erosketak euskaraz gauzatzea.

Bigarren urratsa Udalak establezimendu bakoitzarekin hitzarmenak sinatuz gauzatu zen. Hitzarmen hauen bidez merka-



Hainbat merkatarik alfabetatzeko ikastaroan, udaleko pleno aretoan.

tari bakoitzak euskararekiko konpromiso ezberdinak hartu ditu, hiru multzo ezberdinetan: ageriko idazkiak euskaratu, euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetara animatu eta kanpoko idazkiak euskaraz jasotzeko konpromisoa.

107 establezimendutatik 79k sinatu dute hitzarmena

Herrian 107 dira denda, jate-txe eta tabernak, eta guztiei egin zitzaion aurrez aurreko kanpainaren aurkezpena eta hitzarmenaren proposamena. Behin hitzarmenaren proposamena eginda, 79k eman zioten baietza bertan parte hartzeari, elementuren bat euskaratzeko edota beraien euskara maila hobetzeko hitza emanez.

Bigarren kanpaina honek izandako harrera, beraz, oso ona izan da, 1998an bezalaxe. Honen lekuko ondorengo datu hauek dituzue:

- **Agerian dituzten idazki mota guztiak euskaraz jartzeko konpromisoa** 22 merkatarik hartu dute. Hauen barruan errotuloa, ordutegiak, poltsak eta era guztietako inprimakiak (fakturak, ordainagiriak, makinako tikeak,...)

- **Euskararen ezagutza hobetzeko konpromisoa**, bi mailatan; batetik, ohiko euskalduntze eta alfabetatze ikastaroan matrikulatuta edota euskara komertzialeko ikastaroan izena emanda. 18 lagunek eman zuten bertan parte hartzeko izena.

- **Euskarazko harreman idaztien sarea** osatzeko konpromisoa 51 merkatarik agertu dute. Udala, finantza erakunde, eta abarren idazkiak euskara hutsez jasotzeko prestutasuna, alegia. Hirugarren konpromisoa honek oso harrera ona izan du, datu oso garrantzitsutzat jotzen dena.

Oso merkatarik gutxi euskalduntzeko ikastaroetan

Une honetan kanpaina hirugarren urratsa ematen ari da; hots, establezimendu bakoitzak euskararekiko hartu zituen konpromisoak praktikan jartzen ari dira. Horren lekuko ditugu jada hainbat establezimendutan ikusi daitezkeen euskara hutsezko errotulok edota astean bitan euskalduntze ikastaroetara joaten diren merkatarik.



Kanpainan euskaratu den errotulueta bat.

Ikastaro hauetara joateko 18 merkari prest agertu baziren ere, 6 bakarrik joaten hasi ziren hasieran eta egun, arrazoi ezberdinak tarteko, 3 baino ez dira joaten.

Kanpainaren arduradunek garrantzi berezia ematen diote konpromiso honi. Izan ere, 1997an egin zen azterketa soziolinguistikoak datu kezka-garria eskaini baitzigun: **merkatarien erdia alfabetatugabea da**. Askok 40 urte baino gehiago dute, euskaraz ikasteko aukerarik izan ez zutenak edota ikasketa gabekoak, alegia.

Mari Ardanuik, Kinkildegiko nagusiak aipatu zigunez, *"holako aukerak aprobeztatu behar ditugu. Gaztetan ez genuen aukerarik izan euskaraz ikasteko, eta inoiz ez da berandu honi ekiteko. Kontua da bakoitzak jarri behar diola gogo"*.

Imanol Txapartegik gustora joaten dela dio. *"Euskaraz badakigu eta hitz egiten dugu.*

Baina, gure ezagutza handitzeko eta trebatzeko aukera ona da". Aldamuko Maria Eugeniak ere hala aipatzen zigun: *"jende gehiago etorriko balitz klaseak atseginagoak izango liriateke eta beste giro bat egongo zen; besteak ere animatu beharko lukete"*.

Egoera hau ikusita kanpainako arduradunek beste saiakerak bat egingo dute merkataria animatzeko. Honekin batera, merkataria guztiei material ezberdinez osatu den karpeta bat emango zaie: merkataritza arloko hiztegia; idazkera arauak; gehien erabili ohi dituzten idazki ereduak euskaratuta (fakturak, eskaera orriak, helbide-txartelak...); udalak egiten dituen eskaintzen informazioa (errotuloak euskaratzeko eta ikastaroetarako dirulaguntzak,...).

Bestalde ere, Udarregiko ikasleek kanpaina honetarako



Kanpainan banatuko den material sorta.

prestatu dituzten Zabalik/Itxita eta Orduategiaren karteltxoak ere banatuko dira establezimenduz establezimendu.

Azkenik, gogoratu udalak kanpainan zehar, eta hemen-dik aurrera ere, merkatarien eskaerei erantzuteko **itzulpen eta hizkuntza aholkularitza zerbitzua** duela martxan.

Horrela bada, orain guztion ardurak bada, euskararen normalizazio bidean, herriko komertzioetan euskaraz erostea. Guk dugu konpromiso handiena.

Agurtzane Solaberrieta

Zein iritzi duzu merkataritza euskalduntzeko kanpainari buruz?



Arantzazu Aranburu

- Herritarra
- Kaleberri

Herrian edozein komertzioetan lehen hitza euskaraz egiten dugu. Baina, beste edozein herritarra joaten bazara, Donostiara adibidez, ohitura dugu lehen hitza gaztelaniaz egiteko. Hala ere, azken urte hauetan aldaketa egongo dela uste dut, euskarekiko jarrera baikorragoa dute. Horrelako kanpainak oso egokiak dira, batez ere, norberaren sentsibilizazioa garatzeko, askotan errezerira jotzen baitugu. Beti erne egon behar dugu eta kontzientzi horrekin bizi, euskararen alde edozein tokian.



Patxi Borda

- Merkataria
- Txokoalde

Era honetako kanpainak oso egokiak ikusten ditut, beharrezkoak dira oso. Baina, Usurbilen komertzioen problematika ez da hori, badiugu bestelako arazoak, larriagoak. Konpetentzia asko ditugu; batetik, Donostiatik oso gertu bizi gara eta, bestetik, aldamenean Urbil bezalako mamua jarri digute. Herrian geroz eta komertzio gutxiago dago, inor ez da ausartzen denda bat irekitzera. Gaiari helduz, normalean euskaldunak direnak euskaraz egiten dute, nahiz eta batzuetan, gaztelania tartekatu.



Iban Etxaniz

- Tabernaria
- Atxegalde

Badut kanpainaren berri eta oso egokia dela uste dut. Oraindik ere herrian badago beharra euskara bultzatzeko, bai merkataritza arloan nahiz beste zenbait arloetan ere. Bi hizkuntzetan egon beharko luke dena, eta ez soilik erdara hutsean. Guztia euskaraz jartzea, pauso handiegiegia da batzuentzat, arrazoi asko medio. Tabernara etortzen direnek, euskaldunez ari naiz, normalean euskaraz hitz egiten dute beren artean. Herritarrak ez direnak, gehienetan gaztelaniaz jarduten dute.



Piparrak ontziratzeke lan-deialdia egin du Pipar Elkarteak

Uztailaren amaieran hasi eta iraila bitartean piparrak ontziratzeke langileak behar ditu Pipar Elkarteak. Izena emateko epea maiatzaren 6an irekiko da eta 17an amaituko. **Interesaturik bazaude, deitu 943 36 39 58 telefonora (9:00etatik 13:00era).**



Aurten 40 lagun hartzeko asmoa dago.

Iaz 24 langile hartu zituen Pipar Elkarteak. 8 laguneko turnotan egin zuten ontziratze lana. Aurten 40 inguru dira elkarteak piparrak ontziratzeke behar dituenak. Gazte jendearentzat aukera paregabea da. Udaldian dirua irabazteko aproposa delako. Lehentasuna Usurbilgoei emango zaie. Ondoren, inguruko jendeari. Erosoena herritarrentzat da, etxean bertan egonda ez dutelako ibilgailuen beharrik. Pipar Elkartekoek gaz-

teak baina bereziki emakumezkoak animatu nahi dituzte. Lan hauetarako esku ona dute eta gainera sektore hori da langabezia-tasa gehien pairatzen duena. Pipar ontziratzean dute lanerako hitzordua. Izena maiatzaren 17a baino lehen eman beharra dago. Dena den, emaitzen arabera, epea denbora gehiagoz luza dezakete.

► Odol emaleen deia

Odol Emaleen Elkarteak odola emateko deialdi berri bat egin du. Maiatzaren 6an, asteazkena, 19:00etatik aurrera Osasun Zentroan.

► Frutagintza ikastaroa

Elikaduratik Abiatuz Autogestioa! elkarteak frutagintza ikastaroa antolatu du. Lasarte-Oriako REMen emango dira klaseak maiatzaren 15ean, 16an, 22an eta 23an, 17:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago 943 36 64 47.

► Jardunaldiak antolatu ditu Lanbide Eskolak

Eskolaren berri eman asmoz, jardunaldi irekiak antolatu dira datozen egunetan. Maiatzaren 9an egingo da lehena, arratsaldeko 16:00etatik 18:30etara. Bigarren saioa, Maiatzaren 16an izango da.

► Manifestaldia azken operazioa salatzeke

"Utzi bakean Euskal Herria" lemapean eta Batasunaren aurkako polizi operazioa salatu asmoz manifestaldia egin zen apirilaren 29an.



Lan-istripuak salatzeke ordu bateko lanuztea egin zen



Savasako langileak ordubetez kalera atera ziren.

"Zure osasuna arriskuan" lemapean ordubeteke geldialdia deitu zuten sindikatuek. ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deialdi bateratua egin zuten.

Apirilaren 26an egin zen lanuztea 11:00etan hasita. Irudian, Savasa enpresan geldialdiarekin bat egin zuten langileak.

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



CARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

**FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK**

IGELTSERITZA

URDANTZI, C. B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439

Eguzkiak ere bat egin zuen jaigiroarekin

Deialdia egina zegoen. Kanpotik jendea etorriko zela bazekiten. Bertakoen erantzuna zein izango ote zen jakitea falta zen. Azkenean 300dik gora lagun bildu zituen "Elkartasuna... Etorrizuna" festak. Zazpi herrialdeen arteko harremanak sendotu asmoz Aitzaga Kultur Elkarteak eta Nafararren Lagunak antolatutako egunak.

Eguraldia ere bikaina izan zen eta horri esker festak itxura polita hartu zuen lehen momentutik. Handik eta hemendik etorritako dantzariak, bertsolariak, txistulariak eta musikariak alaitu zuten zazpi herrialdeen arteko topaketa. Zikero-janak frontoian bildu zituen partehartzaile guztiak.

Honi esker, bazkalostean saltsa polita osatu zen.

Antolatzaileen balorazioa ona da eta topaketa honek jarraipena merezi duelakoan daude. Dena den, lekukoa nork hartuko duen argitu beharra dago. Berriro Usurbilen ospatzea errepikagarria dela pentsatzen duenik bada. Baina oraindik goiz da hori zehazteko. Udazkenean serio planteatuko da gaia eta orduan ikusiko da Usurbilen errepikatzen den hala beste herrialde bat den festaren ardura hartzen duena. Aitzaga eta Nafararren Lagunak behintzat aurrerari ona ezarri dute.

Lekukoa beste batek hartzen badu, behintzat, Usurbilgoen laguntza izango du.



Goizetik bazen zer ikusirik, zer entzuterik.



Bazkarirako 300 txarteldik gora saldu ziren.

Zuberoaren aldeko herri afaria antolatu da maiatzaren 10erako

«Xiberoa garatzen! Egitasmoa» aurkeztu zenean kanpainari jarraipena egiteko lan-talde bat osatu zen. Gai hau plazara atera eta ekarpen ekonomikoak ziurtatzea dira lan-talde honen zeregin nagusiak.

Hurrengo ekitaldia, Askatasuna Plazan egingo den herri afaria izango da. 18 euroengatik afari ederra dastatuko dute bertaratzen direnek: langosti-

noak, entsalada epela bakaila-oarekin, arkumea menestran eta helatua tartarekin. Afalostea girotu asmoz honako hauek hartuko dute parte: Eli eta Alazne kantariak; Labrit; Etxeta eta Igor trikitilariak eta Ibai Esosain eta Xabier Sukia bertsolariak. Kantuan aritzeko idatziak ere banatuko dira.

Askatasuna Plazan egingo da afaria. Euria egingo balu Aitzaga Elkarteak jasoko luke Zuberoaren aldeko herri afaria.

Presoen aldeko elkarretaratzea

Apirilaren 26an euskal presoen aldeko ekitaldia egin zen frontoi atzean. Etxerat! taldeak egin zuen elkarretaratze honen deialdia.

Lorazain laguntzaile bat behar du udalak

Apirilaren 30eko gobernu batzordean lorazain laguntzaile bat kontratatzeko oinarriak onartu zituen.

Kontratua zazpi hilabetekoa izango da eta izena emateko epea maiatzaren 15ean amaituko da.

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



ZUMETA
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarrak
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

MIKEL
IZAGIRRE

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

Venezuela ez dago hain urrun

Gorabehera handiak izan dira azken asteotan Venezuelan.

Apirilaren erdialdean Pedro Carmona enpresariak estatu kolpea eman zuenetik tirabira asko izan dira bertan. Chavez boterera berriro bueltatu bada ere, giroa oraindik pil-pilean da Hego Amerikako herri honetan. Egun hauetan Euskal Herriko famili asko egon dira Venezuelara begira. Asko dira han senitartekoak dituztenak. Tartean, Irratiko tabernari den Xabier Iribar, *Getai*. 11 urteko alaba du bertan, Aintzane. Egun larrienak urduri jarraitu zituela aitortu digu.

Aintzane Iribarrek ondo ezagutzen ditu Usurbilgo kaleak. Venezuelan bizi bada ere, uda partean hemen ibiltzen da. Laster gure artean izango da berriro, udan hain zuzen. Oraingoan denbora gehiagoz geratzeko etorriko omen da aitarengana. Venezuelako krisian bizitakoa ahazteko ongi etorriko zaio.

Alabak bezalaxe, aitak urduri eta beldurrez igaro zuen Venezuelako estatu kolpea. Telefonoz alabarekin hitz egin ahal izateak lasaitasuna eman zion Xabierrri: "Venezuelatik deitzen zidan alabak eta nik hemendik. Pentsa, 25.000 pezetako faktura iritsi zait!". Egia esan, ez da harrizkoa. Aintzane 11 urte baino ez ditu



Aintzane Caracasen da orain baina uda partean hona etortzekotan da.

eta Caracasen bertan bizi da. Krisiak bete-bete harrapatu ziola, alegia.

Xabier Iribarrek, *Getaik*, esan digunez, gauzak geldo dihoaz Venezuelan. Egoera ez da baretu eta nahasmena handia da.

Petrolioak egiten du aberats Venezuela. Baina ustelkeria kasuek pobrezian utzi dute Venezuela. Irratiko tabernariak zeozer badaki ustelkeri kontuetaz. Alaba jaio zenean Caracaseko erregistroan gertatu zitzaiona ez du erraz ahaztuko Xabierrek: "alaba erregistratzeko 21 egun itxaron beharko nituela esan zidaten. Baina nahi izanez gero arratsaldean bertan eginga izango nuela esan zidaten. Dirua eman eta halaxe erregistratu nuen egun

horretan bertan nire alaba". Hori adibide bat baino ez dela aitortu digu Xabierrek.

1985ean Brasilera joan eta handik Venezuelara igaro zen Xabier. Harrez gero askotan izan da bertan. Alabak ere ezagutzen du Euskal Herria. Azken sei urteotan uda guztietan etorri baita aitarengana. Aurten Xabier pozik dago, alaba geratzeko asmoz etortzeko asmoa duelako.

Euskaraz ere moldatzen da. Palan ibiltzea gustuko du eta ondo moldatzen da gainera, Caracaseko Euskal Etxeak antolaturiko bi txapelketa irabazi baititu. Beraz, euskal sena barrenean darama Aintzane. Venezuelako krisi hotsak utzi eta laster gure artean izango da.

KOMPONKETAK
ALDAMU

Giltzak
kopiatzen
ditugu!

Zapatak, Kanpinak,
Kremlerak (poltsak,
zamarrak, galtzak...)



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

ITURGINTZA

JOSEBA
ARANGUREN

Tel: 943 83 00 72

Legarreta: “postuarekin baino gusturago nago egindako saioarekin”

Aranoarra da berez, Hernani aldera joaten da, ordea, bertsoan egitera eta gure herriko bazterretan ere ezaguna da. Joan den apirilaren 14an Donezteben ikusi genuen kantari, Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Zazpigarren aldiz parte hartu du txapelketan eta bitan bigarren postua lortu du. Aurten laugarrena izan da. Aitzakia ederra berekin hizketan aritzeko.

Nolakoa izan da Nafarroako Txapelketako ajea?

Gustura nago, postuarekin baino gusturago egindako saioarekin. Saioa hotz hasi nuen eta hotz jarraitzeko beldur handia nuen. Puntukako saioak moral dezente eman zidan, berotu egin nintzen eta ariketa batzuetan nahikoa asmatu nuela uste dut. Telebistan tarte bat eskaintzen baldin badizue, bada, gustura. Urtean zehar saio batzuk ziurtatzeko modua da.

Hain garrantzitsuak al dira txapelketa eta telebista gero plazak egiteko orduan?

Nik daukaten esperientzia apurrari begiratuta, orain arte bigarren egin dudan bi urteetan saio dezente egin dut. Bigarren aldian, behintzat, harrituta gelditu nintzen zein lekutatik deitzen zidaten. Bizkaian saio asko egin nituen eta baita Gipuzkoan eta Nafarroan ere. 40 bat saio egitera iritsi nintzen urte hartan eta iaz, adibidez, dozena bat inguru egin nituen.

Aurtengo txapela Ametsek eraman zuen, baina askoren ustez txapelak beste buru bat behar zuela.

Han goian ez nuen saioa asko jarraitu, baina irudipena neukan hiruren artean zegoela txapela; Silveira, Sustrai eta



Ametsen artean. Ez nintzen harrituko txapela Sustrai edo Silveirak jantzi izan balute eta ez nintzen harritu Ametsek irabazi zuelako ere.

Eta zuk jakin zenuen lehenengo Amets zela txapeldun.

Bai, papera ikusi eta iruditu egin zitzaidan. Berari esan nion eta ez zuen sinisten.

Hasieran Xabier Legarreta ez zegoen favoritoen artean. Horrek nola eragiten du ohol-tza gainekoan?

Beti plaza gehien egin dituzten izenak dira favorito, bertsozalea horiekin gogoratzen da eta Euskal Herriko Txapelketa pasa berrian mapa

horretan sartu ez ginenak ez geunden favoritoen artean.. Izatekotan eragin positiboa dauka horrek gudan, inongo presiorik gabe igo baikin oholtzara, ez genuen ezer galtzeko eta irabazteko, berriz, asko.

Azkenean saio ederra eskaini zenuen, Nafarroako txapelketa osasuntsu dago.

Bai, aurten bertan 32 bertsolari izan gara denetara, Nafarroako eta Iparraldeko ligan kontuan hartuta eta kopuru aldetik ere bada zerbait. Lehen txapelketak utzita zegoen jendeak ere parte hartu du eta hori garrantzitsua da. Kantitatea dagoen lekutik kalitatea ateratzeko arrisku handiagoa dago beti.

Nola igo zenituen oholtzako eskilarak eta nola jaitsi?

Oso kontzentratuta igo nintzen. Begiratu txikia egin nuen entzuleengana eta frontoia bete zegoela ikusi nuen. Garantiak, bazeuden, beraz, saio polita egiteko. Jaitsi, berriz, nahiko kontentu jaitsi nituen. Imanol Lazkanok ere saio polita egin nuela esan zidan, baina lastima, azkenurreko bertsoan egindako potoa. Konturatu ere ez nintzen egin eta hala nahiago, azkeneko bertsoa izorratzeko bidea izango zen bestela.

Amagoia Mujika

Arano, Legarretaren arabera

Bertsotan bere maisu. Aitona, Jose Mari Legarreta.

Etorria. Erdibidekoa.

Kantaera. Bere armetako bat, kantatzea oso gustuko du.

Doinua. Motzak nahiago ditu, baina azkenaldian luzeetan ere gustura aritu da. Puntuka egitea oso gustukoa du.

Puntukako bikote maitea. Unai Agirre.

Idoloa. Denona, Andoni Egaña. Maidalen Lujanbio eta Sustrai Colina ere maiteak ditu.

Inoiz ahaztuko ez dituen bertsoak. Askok. Iazko Euskal Herriko Txapelketa osoan Maidalenen bakarkako lanak ez zaizkio ahaztuko puska batean.

Oholtza edo taberna zokoa. Oholtza oso maitea du, baina momentu jakinetan tabernan gozatu ederrak hartutakoa da.

Andatza Eguna hemen da

Maiatzaren 5ean Andatzaren egun handia ospatuko da. Mendiaren izena daraman elkarfeak egunak daramatza prestaketa lanetan. Aurtengo egitaraua igoaltsua izango dela adierazi digu Joseba Pellejerok, Andatza KKE-ko kideak.

Lehen babarrun-jatea izaten zen. Baina duela bi urte galdu zen ohitura hori. Mezarrena bezalaxe. Dena den, Andatzara igotzen direnek hamaiketakoaz gozatzeko aukera aparta izango dute.

Goiztiarrak 8:00ak aldera jada Andatzan zabaltzen den tabernatxoan bildu ohi dira. Hala ere, gehientsuenak 10:00ak aldera iritsi ohi dira Andatzako txabolaren inguruetara. Bazkariarekin igoko direnak izango dira. Beste batzuk goizeko buelta egingo dute. Akaso bezperatik kanping-ean joandako gazteak ere bat egingo dute Andatzako gainan. Zizurkildik ere igo izan dira, sokatira eta guzti. Aurten hauek guztiek gosariatz, paisaiatz eta trikitixaren doinuaz gozatu ahal izango dute.



Erretratuan ikusten den moduan, jendeak gustukoa du Andatza Eguna.

Eguraldia ona izatea baino ez da falta. Eguzkiak ere bat egiten badu orduan bai festa biribila. Jendeak ez baitu eurtan mendira jotzen.

Eguraldi zoragarria Zestoa-Usurbil arteko ibilaldian

Andatza Eguna gainean da. Prestaketa-lanak aurreratu daudela esan dugu. Egun hau berezia baita Andatza KKE-koentzat. Baina bestelako ekitaldiak ere antolatzen dituzte. Eski irteerak, bizikletak martxak edota mendi ibilaldiak. Pasa den apirilaren 28an, hain zuzen, XIX. Ibilaldi neurtua osatu zuten. Garai batean Usurbilgo Mugak lotzen zituen martxa honek. Azken urteotan, ordea, Andatzakoek bestelako zeharkaldiak egin dituzte. Duela bi urte, esate baterako, Itziarren hasi eta Usurbilen amaitu zen ibilaldia. Kostatik barrena, ibilbidea ikusgarria izan zen. Horren lekuko izan

ziren izena eman zuten 170 lagunak.

Aurten, Zestoa izan da ibilaldiaren abiapuntu. Goizean goiz, 65 partehartzaile autobusez abiatu ziren Zestoaraino. Eguerdirako bueltan ziren. Bidean, Aian hain zuzen, janaz eta edariz indarrak berritzeko astia izan zuten. Ibilarien lasaitasunerako, sendagile zein hornialdi zerbitzuak prest izan zituzten Andatzako lagunek. Amaieran, zozketa bat egin zen partehartzaileen artean.

Aurtengo edizioan, ibilbidea 6 ordukoa izan da aurrekoetan luzeragatik hainbat kexu entzun behar izan zituztelako.



Zestoa-Usurbil lotzen dituzte zeharkaldi honek.



Partehartzaileak Aian bazkaldu zuten.



Igandetan ganba-ziri mundialak!

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurrepegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tinteak
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Tel: 943 36 28 87

Esteban Arrillaga: "Euskadiko judo talde onena gara"

Bizitza osoa judoari eskaini dio Esteban Arrillaga donostiarrak. 38 urte ditu eta 19 egin zituenetik entrenatzailea da Usurbilen. 15 ume izan zituen bere aginduetara Agerialdeko gela batean hasi zenean. Gaur egun, 104 dira judo taldeko kideak.

Judoak jarraitzaile asko ditugure artean, ezta?

92tik hona Euskadiko judo talde onena gara. Euskadiko selekzioaren zutabe nagusia da Usurbilgo Judo Taldea. Adin guztietako kirolariak ditugu eta ez soilik judoa egiten, baita samboo eta borroka

olinpikoan ere. Laster gela handiago bat eskuratuko dugu daukaguna txiki geratu zaigulako.

Estatuko senior txapelketa asteburu honetan jokatu da.

Urtarrilatik hona ia astero txapelketak ditugu. Nazioarte, Estatu eta herrialde mailako txapelketa gehienetan hartzen dugu parte. Egutegia zabala da taldean jende asko daukagulako. 5 eta 30 urte bitartean 104 kirolari ditugu gure artean. Pentsa, Ibaratik, Irundik eta Elgoibartik ere etorzen dira hona entrenatzera.

Atzetik datozen gazteei zer



nolako itxura hartzen diezu?

Aiora Arrospide, Andoni Aizpurua, Sergio Montes, Shanti Arrieta... eta izen gehiago aipa ditzaket. Adin guztietakoak ditugu eta badira sendo datozen gaztetxoak ere.

Judo taldea bikain Gipuzkoako Txapelketan

18 urte azpikoak

- 66 kg
1. Xabier Pagola
- 73 kg
2. Shanti Arrieta
- 81 kg
2. Adrian Gartzia
- 90 kg
1. Sergio Montes
- 44 kg
1. Zuriñe Polo
- 63 kg
1. Maialen Mora

70 kg

3. Nagore Maiz

70 kg

1. Irati Arruti

23 urte azpikoak

60 kg

3. Alex Sanchez

3. Xabi Gonzalez

66 kg

1. Iban Etxaniz

3. Iñigo Etxaniz

3. Xabier Heras

73 kg

2. Aitzol Arrospide

90 kg

1. Egoitz Mora

2. Sergio Montes

48 kg

3. Zuriñe Polo

52 kg

1. Oihana Blanco

63 kg

1. Vanesa Guevara

2. Maialen Mora

70 kg

3. Nagore Maiz

78 kg

2. Irati Arruti

Pilota deialdiak

Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa hasi da. Maiatzaren 10ean, Aia-Lazkao kanporaketako irabazlearen aurka lehiatuko dira gure pilotariak 22:00etan hasita. **Txapelketa Nagusia**, berriz, maiatzaren 11n hasiko da. **Andazpe-Peña Pagola Eskolarteko Pilota Txapelketa**ren finala, azkenik, maiatzaren 12an jokatu da.



Imanol Esnaola, Unai Olaizola eta Enaut Esnaola, Eskolarteko Baitarako irabazleak.

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67


GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



Ainhoa Arrozpide Landa



Idazkaria.

28 urte.

Erlezaien eguna azaroan ospatuko da

Igaro da apirila eta ez dugu Erle Egunik ospatu. Zergaitik? Beste herri batean antolatute da? Eztirik ez ote dago? Antolakuntza lanetarako inor ez ote da eskaini?

Ez. Bada arrazoi garrantzitsu (nagusi) bat. Ezti bilketa abuztua eta iraila inguruan hasten da eta udazkenerako amaitzen da prozesu hori. Ondorioz, apirilean lehiaketara aurkezten ziren eztiak aurreko urtean bildutakoak ziren. (Iaz 76 ezti ontziratatu izan genituen Euskal Herriko Ezti Lehiaketan).

Eztiaren kalitateari dagokion garrantzia emateko helburuz, ospakizun data aldatzea erabaki dugu. Aurrerantzean erabaki hau mantenduko delarik.

Beraz, adi aurten IV. Erle Eguna azaroak 10ean izango baita. Aurreko Noaua!n jaso zen albiste baina honakoan egun honen antolatzaileok egoki ikusi dugu gure egitasmoen berri ematea.

Aurten ere ospatuko dugu Erle Eguna baina, beranduxeago, azaroaren 10ean hain zuzen. Urteroko egitarauaz gain (azoka, lehiaketa, hitzaldiak, dastaketak, zozketa...) berrikuntzak prestatzen hasi gara (jendeaurreko ezti ateratzea, erle durrunda ikusgarria...)

Erleak eskaintzen dizkigun onura guztiak (ez direla gutxi) gerturatzeko asmoz.

Aurreko edizioetan adierazi duzuen ikusmina azaroaren 10a bitartean mantenduko duzuelakoan gaude.



Zuen agendan lekutxo bat egingiten joan zaitezke egun horretarako, zer ikusi eta ikasi izango baitugu.

Oharra: antolakuntza lanetara norbait animatu nahi badu taldea irekita dago. Gustura hartuko genituzke partehartze guztiak.

erlelaguna@euskalerrria.org

75 postakutxa

20170 Usurbil

Gipuzkoa



Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
TIF 043 37 08 78

20170
TUSURRI



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
*modako arropa guztia
hemen aurkituko duzu*

Udaberriko moda berria zuretzat!

Lehiaketa

Argazki honetan 7 aldaketa egin ditugu, ezetz asmatu zeintzuk diren?



**Saria:
afaria bi
lagunentzat
Tragoxkan**

133. aleko erantzuna



Aurreko zenbakiko galdera:

Argazkiko pertsonen izenak eta bi abizenak.

Erantzun egokia:

(Ezkerretik eskubira) Julian Azpiroz Alda, Joxe Soroa Berrotaran, Antonio Orbegozo Lizarazu, Juan Mari Borda Zubeldia.

Irabazlea

M. Dolores Beldarrain

Saria

Afari bat bi lagunentzat Antxeta Jatetxean.

Erremedioen txokoa

□ Udaberrirako fruta-zumo ezberdinak

1) Garbitzeko balio duen zumoa:

✘ **Osagaiak:** Jingibre zerra bat, erremolatxa bat, sagar erdia eta lau azanarioz eginiko zumoa.

✘ **Nola hartu?** Astebetaz egunero basoka bat hartu, baraurik.

✘ **Zetarako balio du?** Ondo kaka egiteko, hesteak garbitzeko,... Azanaoriak minbiziari aurre egiteko ona da, karotenoa duelako; baita azalarentzako ere. Jingibrearen kasuan, odola garbitzeko balio du.

2) Zumo-zuzpergarria:

✘ **Osagaiak:** Bi laranja, sagar handi bat eta 50 gr. limoi. Osagai hauekin zumoa egin.

✘ **Nola hartu?** Astebetaz egunero basoka bat hartu, baraurik.

✘ **Zetarako balio du?** Makal xamar bazabiltza edota nekatuta bazabiltza, zumo hau oso egokia da.

3) Akneari aurre egiteko zumoa:

✘ **Osagaiak:** Laupabost azaburu hosto, eskukada bat perrexil, lau azanario eta sagar erdi bat.

✘ **Nola hartu?** Egunean lau aldiz hartu daiteke, baina baraurik.

✘ **Zetarako balio du?** Aknea baldin baduzu, zumo hau oso egokia da akneari aurre egiteko.

4) Insomnioari aurre egiteko zumoa:

✘ **Osagaiak:** 100 gr. letxuga eta 100gr. erremolatxa zurituta. Likuadoran pasa.

✘ **Nola hartu?** Lo egin aurretik hartu, egunero.

✘ **Zetarako balio du?** Gauetan lorik ezin baduzu egin, edo zailtasunak baldin badituzu, egunero ohera sartu aurretik goilarakada bat hartu.

A genda

MAIATZAK 5 igandea

- Andatza Eguna. Antolatzailea: Andatza KKE.

MAIATZAK 8 asteazkena

- Santixabeletako Haurren Danborradan izena emateko azken eguna. Goizez, egunkari kioskoan. 3-15 urte bitartean.

MAIATZAK 9 osteguna

- Lanbide Eskolaren jardunaldi irekiak, 16:00etatik 18:30etara.

MAIATZAK 11 larunbata

- Santixabeletako Haurren Danborradaren entsegua Udarregin, 11:30etan.

MAIATZAK 14 asteartea

- Santixabeletako egitarauaren diseinua Udalean aurkezteko azken eguna.

MAIATZAK 15 asteazkena

- San Isidro Eguna.
- Frutagintza ikastaroaren hasiera. Izena emateko deitu 943 36 64 47 zenbakira.
- Jai Batzordea Udalean, 20:00etan.

👉 GARAJEAK

- 🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- 🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- 🔧 Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- 🔧 Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- 🔧 Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

👉 ETXEBIZITZAK

- 🔧 Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- 🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- 🔧 Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- 🔧 Usurbilen gela baten bila nabil, lo egiteko bakarrik. Lekurik baduzu dei iezadazu : 653 011 842.

- 🔧 Etxe bat alokatuko nuke. Beste batekin konparitzeko prest. 626 680 915.

👉 LAN-ESKAERAK

- 🔧 Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. 943 36 43 10.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzza. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edota 3. adinako pertsonak zaintzeko. Itel: 647 220 966.

👉 LAN-ESKAINTZAK

- 🔧 Udarregi ikastolan kirol begiraleak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 zenbakietara.
- 🔧 Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.

👉 BESTELAKOAK

- 🔧 Matrimonio-gela bat saltzen dut: armarioa, kabezala eta bi mesanotxe. 943 36 43 35.
- 🔧 Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. 943 835441 telefonora (Begoña).
- 🔧 Fagor markako frigorifiko bat saltzen dut. 5 urte ditu baina berria dago. 943 36 69 95 (Inma).
- 🔧 Belarritako bat galdu dut, urrezkoa eta perlatxo bat du. Bilatzen duenak deitu dezala 943 362 088 zenbakira.
- 🔧 Erloju bat ekarri dute Noaualra. Beraz, norbaitek bere erlojua galdu badu, etorri gure egoitzara, ea hemen daukaguna den ikustera.
- 🔧 Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- 🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- 🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.
- 🔧 Wolswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 🔧 Martxoaren azken larunbatean erloju digital bat galdu nuen. Beltz kolorekoa da. Topatu baduzu deitu 943 37 33 36 telefono zenbakira.

🏆 KIROL DEIAK

Maiatzak 4/5

* FUTBOLA

Bergara - **Usurbil FT** (E)

Udarregi - Lasarte (Infantilak, G)

* ESKUBALOIA

Urnietako - **Usurbil KE** (2. N, G)

Pneumax Elgo - **Usurbil KE** (J, G)

* ARETO-FUTBOLA

Ataun Bitor Jat- **Txotx** (BM-B, G)

Antxeta - Inter Intxaur (BM-B, G)

Peio Arrain.- Martu Kirol (Jub, E)

Maiatzak 11/12

* FUTBOLA

Usurbil FT - Antoniano (E)

Alkartasuna Lize - **Udarregi** (I, G)

* ESKUBALOIA

Leizaran - **Usurbil KE** (2. N,G)

Aloña Mendi -**Usurbil KE** (2. N,G)

Usurbil KE - Hondarribia (J, G)

* ARETO-FUTBOLA

Txotx - Larramendi

Ramon Vizcaino B- **Antxeta**

Inter Intxaur- **Peio Arraindegia**

* G: Gizonezkoak / E: Emakumezkoak.

🏆 KIROL EMAITZAK

Apirilak 20/21

* FUTBOLA

Zarautz 1- **Usurbil FT** 0 (E)

Leizaran 1- **Udarregi** 20 (I,G)

* ESKUBALOIA

Usurbil KE 16-Aloña M 29 (2N, G)

Urnietako 22- **Usurbil KE** 6 (2N, E)

Gaur Elgoi 17- **Usurbil KE** 26 (J, G)

* ARETO-FUTBOLA

Lugaritz 2 - **Txotx** 2 (BM -B, G)

Antxeta 11 - **Peio Arraindegia** 0 (BM - B, G)

Aitzaga 1 - Salesiarrak 3 (BM - B, E)

Plis plas txalo ta jolas

MAIATZAK 10

Kaleberrin
Arratsaldeko 17:30 etan
TAKOLO PIRRIIX eta
PORROTX

MAIATZAK 18

Aginagan
Arratsaldeko 17:30 etan
KIXKA taldea:
TXERRIKETAN BERRIKETAN
(txontxongiloak)

MAIATZAK 25

Zublean
Arratsaldeko 17:30 etan
DETRAKA taldearen
tailerrak

EKAINAK 1

Santuenan
Arratsaldeko 17:30 etan
ERIZ magoa

EKAINAK 8

Kalezarren
Arratsaldeko 17:30 etan
DETRAKA taldea:
MAKINA EROA
(antzerkia)

Ekitaldi bakoltzaren ondoren txokolotea izango da.



Noqua!!
HAMASOSKARIA

Has dadila "Plis plas txalo ta jolas" haurren egitaraua!

Azken urteetako bideari jarraituz, aurten ere "Plis plas txalo ta jolas" egitaraua martxan jarri dugu. Etxeko txikiak goxatu asmoz zuen auzoan edo ingurukoetan izango da zer ikusi eta zer entzuna. Maiatza eta ekaina bitartean, antzerkia, txontxongiloak, jokuak, magia, pailazoak,... denetarik ikusteko aukera zabalago izango dute herriko haurrek. Gainera, txokolote eta bizkotxo goxo-goxoak jateko parada ere bai.

Auzoetako jai batzordeak, Zubietako eta Aginagako eskolak, Euskal Txokoak, Noaua! Kultur Elkartea eta Udala izan dira egitasmo honen eragile.

Lehen ekitaldia maiatzaren 10ean, ostirala, arratsaldeko 17:30etan izango da, herriko pilotalekuan. Gure artean Takolo, Pirriix eta Porrotx pailazo eza-gunak izango ditugu. Beraz, ez galdu aukera eta azaldu ekitaldi guztietara!

X LEHEN EKITALDIA: MAIATZAK 10, ostirala, arratsaldeko 17:30etan, herriko pilotalekuan TAKOLO, PIRRIIX ETA PORROTX

Ondoren txokolotea izango da.

SETABU TAILERRAK, S.M. ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



- X SOLDADURA**
- X BURDINEZKO ATEAK**
- X BURDIN SAREAK**
- X PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK**

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TEL: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


**GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4.6.8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2.4.6.8**

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN


**SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.**

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua



Bigarrenengo solairua



LASARTE-ORIAKO BATXILER INSTITUTUA

HEZIKETA PUBLIKOA, KALITATEZKOA ETA AURRERAKOIA

www.instilasarte.net

AURREMATRIKULA:
MAIATZAK 2-10

LOGSE BATXILERGOAK (A eta D ereduak) (16-18 urte)

- Humanitateak eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa
- Teknologia Batxilergoa

HORNIKETA BERRI ETA GAURKOTUA

- Fisikako eta Kimikako laborategiak
- Natur Zientziako laboratoriorak
- Teknologiako bi gela
- Informatikako gelak
- Argazki laboratoriora
- Gimnasioa

ZERBITZUAK:

- Zarauztik eta Donostiatik autobusak
- Orientabide zerbitzua
- Psikologoak
- Informatikako gelak. Internet
- Heziketa ez-arautua
- Irteera kulturalak
- Praktikak Europako Elkarteko enpresetan

BATXILERGOAK:

Buenos Aires aldapa.1
Telf: 943 372277 - 372852
Faxa: 943 37 16 78
lasarte_bhi@instilasarte.net

ZIKLOAK:

Urnieta bidea z/g
Telf: 943 37 06 11
Faxa: 943 36 33 96
zikloak@instilasarte.net



HEZIKETA-ZIKLOAK

ADMINISTRAZIOA:

- Administrazio-kudeaketa (Erdi mailakoak)
- Administrazioa eta Finantzak (Goi mailakoak)

MERKATARITZA

- Merkataritza kudeaketa eta Marketinga (Erdi mailakoa)

INFORMATIKA

- Sistema informatikoen administrazioa (Goi mailakoa)



UDALBILTZA

HEMEN DA EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA

Mundu zabalean herri askeek egiten duten bezala, euskaldunok ere gure naziotasuna aitortu nahi dugu.

Herri guztiek dute erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea eta beren egitura politikoa eta beren ekonomia, gizartea eta kultura askatasunez garatzeko.

Gizaki guztiek naziotasuna izateko eskubidea dute. Inori ezin zaio naziotasuna ukatu edo naziotasuna aldatzeko eskubidea kendu. Euskal herritarrek garen heinean naturaltasun guztiarekin garena aitortu nahi dugu munduaren aurrean.

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsian Biltzarrak - UDALBILTZAK- Batzar Orokorrean Euskal Herriko Naziotasun Aitormena bideratzeko konpromisoa hartu zuen.

Herritarrek beren naziotasuna aitortu dezaten, Udalbiltzak Euskal Herriko Naziotasunaren Aitormena egiteko inprimakiak Bai Euskal Herriari taldearen esku jarri ditu jadanik.

Bai Euskal Herriari Taldeak LARUNBATERO GOIZEKO 11:00etatik 13:00era UDAL PLENO ARETOAN EGONGO DA EDOZEIN ZALANTZA IIERRITARREI ARGITZEKO. KARNETA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Errolda agiria, 3 argazki eta ordain agiria

HEMEN DA

EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA

